

DIRU-ITURRIAK



Gure enpresa sortzeko orduan, finantziazioaren zati bat enpresaren sortzaileak jarriko dugu. Hala ere, bazkideen eta bezeroen ekarpenak erabiliko ditugu enpresa aurrera eramateko eta bankuari epe luzeko mailegu bat eskatuko diogu. Horrez gain, eskaintzen ditugun jarduerak biztanleriaren zati handi bati zuzenduta dagoenez, udalak diru sarrerak eskainiko digula aurreikusten dugu.

Horri esker, lokalaren alokairua, argia, makineria, ura, langileen soldatak... diren kostu finkoak ordaintzeko erabiliko dugu, baita aldakorrak ordaintzeko ere: jarduera ezberdinak egiteko behar den materiala... Kostuak murrizteko helburuarekin, kolaboratu egingo dugu enpresa teknologiko batekin, adibidez, karaokea egiteko materiala lortuz.

Lokalaren eta bezeroen ongizatea bermatzeko, garbiketa eta makineria mantentzeko zerbitzua ematen duten enpresak azpikontratatuko ditugu.

Gure zerbitzuaren truke ordaintzeko momentuan, aukera eman diegu bezeroei ordaiketa bakarrean edo ordainketa errepikarieretan ordaintzeko, hau da, urte hasieran edo hilero ordaintzeko. Horrela, gure bezeroei erraztasuna eskainiko diegu ordaintzeko orduan, gure ustez, bezero guztiek gure prezioa ordaintzeko ahalmena izango dutelako.

Guru tarifak hauek dira:

URTERO				HILABETERO
TARIFA FINKOA	Zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko kantitate minimoa	40€		5€
TARIFA ALDAKORRA	Jarduera bat edo bestea egiteagatik ordaindu beharreko prezio gehigarria:	Karaokea	18€	3€
		Kirol jarduerak	40€	5€
		Zinema	30€	4€

EGUN BATEKO KUOTA: 10€ (nahi duzun jarduera aukeran)

Gure helburua, etekinak ateratzea denez bezeroak ahalik eta denbora gehien gelditzea interesatzen zaigu. Horretarako, urte bateko tarifa merkeago jarri dugu, bezeroak urte osoa gelditzeko, errentagarriagoa aterako zaie eta.